



**Irailaren 27ko 14/2013 Legea, ekintzaileei laguntzekoa eta nazioartekotzekoa (EAO 2013/09/28).**

23. artikulua, kutzako irizpidearen erregimen berezia.

Artikulu horrek BEZaren araudian aldaketa hauek dakartza:

- 120. Bat artikuluan, zenbaki bat gehitu da: 9.a, kutzako irizpidearen erregimen berezia.
- IX.tituluan, X.kapitulua gehitu da: "Kutxa irizpidearen erregimen berezia", 163 decies artikulutik 163 sexiesdecies artikulura.

Laburbilduz, baldintza hauek beteko dira erregimen berria aplikatzeko:

- Aurreko urte naturalean, eragiketen bolumena ez izatea 2.000.000 eurotik gorakoa. Bolumena kalkulatzeko BEZ sortzapenaren orain arteko arauak izango dira kontuan, ez erregimen berezi horrek ezartzen dituenak.
- Erregimen berezi horren aplikaziotik kanpo geratuko da eragiketa, baldin eta hartzaile batengandik eskura jasotako dirua erregelamenduak ezarritako urte naturaleko zenbatekoa gainditzen badu.
- Aukerako erregimena da. Aukera egiteak balioa du, uko egin ezean. Uko egiteak gutxienez 3 urteko ondorioak ditu.
- BEZaren ezarpen eremuan egindako eragiketei aplikatuko zaie, salbu eragiketa hauei:
  - a) BEZaren beste erregimen berezietako eragiketei.
  - b) BEZetik salbuetsiak dauden ondasun emate hauei:
    - 21. artikuluan araututako ondasun esportazioei.
    - 22. artikuluan araututako esportazioekin parekatutako eragiketei.
    - 23. artikuluan araututako eremu franko, gordailu franko eta beste gordailuetan egindako emateei.
    - 24. artikuluan araututako aduanetako hainbat erregimenei lotutako emateei.
    - 25. artikuluan araututako Batasuneko beste estatu erkidegoetara eginiko salmentei.
  - c) Batasun barruko eskurapenei.
  - d) BEZaren 84. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakien arabera, subjektu pasiboa inbertitzen den eragiketei
  - e) Inportazioei eta haiekin parekatutako eragiketei.
  - f) Ondasunen eta zerbitzuen autokontsumoei.
- Erregimen bereziaz aplikatzen den eragiketeetan, BEZa sortzen da prezioa osorik edo zati batean kobratzean eta kobratutako zenbatekoaren arabera; aitzitik, kobrurik ez badago, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n.
- Era berean, ordaindutako BEZaren kenkari eskubidea sortzen da prezioa osorik edo zati batean ordaintzerakoan eta ordaindutako zenbatekoaren arabera; aitzitik,



ordaintzen ez bada, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n. BEZa sortzen denetik 4 urtera galtzen da kenkari eskubidea.

Erregelamenduan jasotzen dira zergapekoen betebeharrak formalak.

- Kutxa irizpidearen erregimen berezia aplikatzen duten zergapekoen ondasun edo zerbitzu emateetan, hartzaileen kenkari eskubidea prezioa osorik edo zati batean ordaintzerakoan sortzen da, eta ordaindutako zenbatekoaren arabera; ordainketarik ez badago, aldiz, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n. Erregelamenduan jasotzen dira zergapekoen betebeharrak formalak.

- Erregimen berezia aplikatzen ez duten zergapekoek oinarri ezargarriak aldatzen badituzte, 80. hiru eta 80. lau artikuluen arabera, ondorioa hau izango da: Erregimen berezia aplikatzen badute ordaindu ez duten hartzaileek, orduan, jasandako BEZ kuotak kentzeko eskubidea izango dute, aurretik ez baldin bazuten.

- Erregimen berezia aplikatzen duen zergapekoak konkurtsoan dagoela deklaratu badu ondorio hauek izango dira konkurtsoaren autoaren egunean, harentzat eta haren eragiketen hartzaileentzat:

a) Jasanarazitako BEZ kuoten sortzapena.

b) Fakturen hartzailearentzat kenkari eskubidea, nahiz eta fakturak ordaindu gabe egon, baldin eta eragiketa egin denetik hurrengo urteko abenduaren 31 igaro ez bada.

c) Erregimen berezian ez dagoenak zergapeko konkurtsatuari jasanarazitako BEZa kentzeko eskubidea sortzen zaio, nahiz eta fakturak ordaindu gabe egon, harik eta eragiketa egin denetik hurrengo urteko abenduaren 31 arte.

Konkurtsoan dagoen zergapekoak konkurtso aurretik sortutako kuotak aitortu beharko ditu eta jasandako kuotak kendu, erregelamendua zehazten duen aitortpen likidazioan, erregelamendua betez. Bertan aitortu beharko ditu data horretara arte kendu gabe dituen jasandako kuotak.

Legea 2013ko irailaren 29an sartuko da indarrean. Ondorioak izango ditu 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.